



## 2015EKO EKAINAREN 23AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA

### 2. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hamabosteko ekainaren 23an, arratsaldeko seietan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ez Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).  
Nekane Larrañaga Aizpuru A. (EAJ-PNV).  
Miguel Angel Bastida Aranbarri J. (EAJ-PNV).  
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).  
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).  
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).  
Asier Lizarralde Aramendi J. (EAJ-PNV).  
Maitane Unanue Azkue A. (EAJ-PNV).  
Urrategi Alberdi Garate A. (EH BILDU).  
Jesus M<sup>a</sup> Oteiza Carrasco J. (EH BILDU).  
Idoia Uranga Salegi A. (EH BILDU).  
Jakes Uranga Repulles J. (EH BILDU).  
Gaizka Larrañaga Ucin J. (EH BILDU).  
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).  
Miguel Pascual Reimundez Milan J. (PSE-EE).

Idazkaria: Begoña Garmendia Vazquez, Udal Idazkaria.  
Kontuhartzailea: Ana Ruiz Landa, Udal Kontuhartzailea.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

### 1.- UDALBATZA PLENOEN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA ERABAKITZEA.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak emendakina aurkeztu duenez, Alkate jaunak Jose Joakin Etxaniz jaunari eman dio hitza aurkeztu dezan.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honako emendakina aurkeztu du:

**“1.- UDALBATZA PLENOEN OHIKO BILKURAK**

**OHIKO PLENOAK**

- *Hileroko maiztasunaz (abuztua eta abendua ezik) azkeneko **asteazkenetan** egitea proposatzen da. Jaieguna izango balitz, **aurreko edo hurrengo** lanegunean egitea erabakiko da aurreko plenoko bilkuran.*
- *Ordua: **arratsaldeko 19ak***

*Kontuan izanda, errealitatean hilero udal batza biltzeko beharra sortzen dela ohiko plenoak abuztuan eta abenduan ezik hilero ospatzeko proposamena luzatzen dugu. Abuztuan eta Abenduan beharrek eskatzen badute ez ohiko plenoa ospatu beharko litzateke.”*

Alkate jaunak Udalbatza Plenoak hilero egiteko arazorik ez dutela adierazi du, beti ere Udalaren Jardunbide Araudia aldatzeko konpromisoa hartzen bada, izan ere Jardunbide Araudiak Plenoak hilabete bakoitietan egingo direla zehazten du nahiz eta orain arte araudia ez den bete.

Urrategi Alberdi andreak gai honetan abstentzioa agertzeko asmoa zutela esan du, ohiko Plenoak hilero egin beharra ikusten dutelako dauden gai guztiak kontutan harturik. Aldaketa jasotzen bada aldeko botoa iragarri du.

Alkatezaren proposamena Jardunbide Araudiaren arabera egin dela dio Alkateak, ez dagoela bestela beraien aldetik inolako arazorik.

Miguel Reimundez jaunak honela dio: *“Aunque había un Pleno todos los meses el ordinario era los meses impares, había un Pleno extraordinario los meses pares con la excepción normalmente de agosto. Entonces aquí sí que se habla solo de los Plenos ordinarios, no habla de los extraordinarios, igual es la Secretaria quien tendrá que aclarar cual es la diferencia y demás.”*

Idazkariak gai honen inguruan txostena egin duela esan du. Ohiko eta ez ohiko plenoen diferentzia oinarrian hartuta, alde batetik ohiko Plenoetan galde-erreguak eta aurrekontuari buruzko informazioa sartzen direla da, ez ohiko Plenoetan ez direlarik sartzen. Bestalde, ez ohiko Pleno batean ezin da inoiz gai zerrendan ez dagoen gai bat sartu, aldiz, ohiko Plenoetan beti ere korporazioaren gehiengo absolutuaren onespenezkin gai zerrendan ez dagoen gai bat sartzea beharrezkoa ikusten bada posible izango litzateke.



Araudi organikoak Plenoaren data eta maiztasuna asko zehazten dituela azaldu du Idazkariak, aipatzen duen maiztasuna legean xedatzen den gutxiengoa delarik. Plenoen maiztasuna finkatzea azken finean, erregelamendu organikoari edo antolakuntza Plenoari dagokion finkatzea argi utzi behar da. Idazkariaren ustez ohiko Plenoen maiztasuna antolakuntza Plenoak finkatu behar du, zentzu horretan araudi organikoa berari dagozkion zereginetaz haratago doalako. Puntu honetan erregelamendu organikoa aldatzea eta malgutzea komenigarria litzatekeela adierazi du.

Beraz, honako emendakin transakzionala adostu dute batzarkideek:

### **“1.- UDALBATZA PLENOEN OHIKO BILKURAK**

#### **OHIKO PLENOAK**

- *Hilabete maiztasunaz (abuztua eta abendua ezik) azkeneko **asteazkenetan** egitea proposatzen da. Jaieguna izango balitz, **aurreko edo hurrengo** lanegunean egitea erabakiko da aurreko plenoko bilkuran.*
- *Ordua: **arratsaldeko 19ak***

*Halaber, Azkoitiko Udalaren Jardunbide Araudia aldatzeko konpromisoa hartzen da Ohiko Plenoen maiztasunari dagokionean.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza, Jose Joakin Etxaniz Peña eta Miguel Reimundez Milan.

Beraz, Udalbatza Osoak Udalbatza Plenoen ohiko bilkuren maiztasuna erabakitzeko emendakin transakzionala onartzea aho batez erabaki du.

## **2.- BATZORDE INFORMATZAILEEN ERAKETA.**

### **2.1.- OHIKO BATZORDE INFORMATIBOAK.**

Alkate jaunak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldearen emendakina aurkeztu dezan Jose Joakin Etxaniz jaunari eman dio hitza. Honek honela dio:



## **“2.1. Ohiko Batzorde Informatiboak**

*Irabazi Azkoitia Bai udal taldeak barne araudiaren aldaketa proposatzen du eta batzorde informatiboetan parte hartu ahal izateko zinegotzi izaeraren derrigortasuna kentzea proposatzen du Gipuzkoako hainbat herrietako adibideak jarraituz, adibidez Mutriku.*

*Ondorengo batzordeak proposatzen ditugu:*

- **HERRITARREN PARTE-HARTZE BATZORDEA.**
- **EUSKARA ETA HEZKUNTZA.**
- **OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA.**
- **GIZARTE ONGIZATEA, BERDINTASUNA, INTEGRAZIOA.**
- **LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA ZERBITZUAK.**
- **KULTURA, KIROLAK, FESTAK ETA GAZTERIA.**

*Gure taldearentzat herritarren parte-hartze batzordeak aparteko garrantzia du, horrenbestez batzorde propio bat izan behar duela deritzo eta azken urte hauetan eginiko lanari jarraitu behar zaiola deritzo. EAJren proposamenean inongo batzordetan ez da isladatzen herritarren parte hartzea.*

*Bestalde, udal funtzionamendua eta teknikarien lana kontuan izanik, euskara eta hezkuntza arloek beren batzorde propioa izan beharko luketekela deritzogu.”*

Urrategi Alberdi andreak aurreko legealdian 9 batzorde izan zituztela esan du eta guztiak beharrezkoak direla uste du, izan ere, 4 batzordeetara mugatzen bada hainbat gairi lantzeko, aztertzeko eta adosteko denborarik ez zaie ematen.

Bestalde, parte-hartze batzorderik ez dagoela dio eta ez dela inon agertzen parte-hartzea landuko denik. Beraientzat parte-hartzeari buruz batzorderen batean hitz egitea ezinbestekoa da, denon artean ikustea nola sustatu herritarren parte-hartzea, bideak aztertzen eta lantzen joatea eta bide hori herritarrekin egitea, bide luze bat baita eta jendea ez dago horretan ohituta. Herri hauetan parte-hartzearen kultura ez dagoela dio baina herri heldu bat nahi bada ezinbestekoa dela deritzo. Urte hauetan hainbat prozesu egon direla esanez jarraitu du. Lanketa bat egin da Udaleko langileekin parte-hartzearen inguruan formazioa jaso dezaten eta horretan ez dute atzerapausorik egiterik nahi, gai honetan aurrerapausok egitea herriarentzat onuragarria delako.

Honela dio Miguel Reimundez jaunak: *“Nosotros estaríamos de acuerdo con las comisiones siempre y cuando haya un compromiso de funcionalidad, no es cuestión de tener muchas pues en la legislatura pasada hubo muchas comisiones pero había meses donde algunas comisiones no se reunían.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Aquí lo que vemos es que en principio se podía recoger el compromiso de que sean mensuales y por otro lado, sí que echamos de menos la de participación ciudadana. Era algo que se había puesto en marcha, no la legislatura pasada sino la anterior, y creemos que si no como comisión sí como consejo para hacer la continuidad debería haber algo en ese sentido.”*

Urrategi Alberdi andreak aurreko legealdiko batzorde batzuk hileroko maiztasuna zutela gogoratu du, eta mahaia zuten batzordeek aldiz bi hilean behineko maiztasuna zutela.

Alkate jaunak honela erantzun dio Miguel Reimundez jaunari: *“Recojo tus palabras y voy a ser también de vez en cuando bilingüe.*

*Nosotros no cerramos la puerta a ningún tema de participación ni ningún tema que no aparezca aquí condicionado con el nombre, el que no figure el nombre no quiere decir que no se haga nada de eso. Se va a mantener y somos conscientes de que la participación es uno de los temas más importantes que tenemos que seguir cuidando. Ya tenemos nuestros contactos pero queremos que nos deis una oportunidad de cara a hacer una prueba con lo que pensamos nosotros que puede ser una buena gestión.”*

Alkatetzaren proposamenean jasotako batzordeekin aurrera jarraituko dutela adierazi du Alkate jaunak baina horrek ez duela esan nahi bidea egiten hastean zerbait gehiagoren beharrik ez dutenik izango. Batzarkideen iritzia eskertu ditu baina momentuan 4 batzorde eratuko dituztela esan du. Era berean, parte-hartzea eta komentatutako bestelako gaiak faltan izango direnik ez du uste. Denbora izango dela testigu dio eta bitartean konfiantza eskatzen die.

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakinaren bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

- **Kontrako botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue eta Miguel Reimundez Milan.

Beraz, Udalbatza Osoak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak ohiko batzorde informatzaileen eraketari buruz aurkeztutako emendakina EZ ONARTZEA gehiengoz erabaki du.



Alkatetzaren proposamenak honela dio:

### **“2.1. Ohiko Batzorde Informatiboak**

*Alkatetzaren proposamenaren arabera, Azkoitiko Udaleko Batzorde Informatzaile Iraunkorrak honako hauek izango dira:*

- **OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA.**
- **GIZARTE ONGIZATEA, BERDINTASUNA, INTEGRAZIOA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA.**
- **LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA ZERBITZUAK.**
- **KULTURA, KIROLAK, FESTAK ETA GAZTERIA.”**

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue eta Miguel Reimundez Milan.
- **Kontrako botoak:** Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak ohiko batzorde informatzaileen eraketa onartzea gehiengoz erabaki du.

### **2.2.- BATZORDE INFORMATIBO BEREZIAK.**

Alkate jaunak honako proposamena aurkeztu du:

#### **“2.2. Batzorde Informatibo Bereziak:**

- **KONTUEN BATZORDE BEREZIA, urteko kontuak aztertu eta diktaminatzeko xedearekin. Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritza Batzordeko kideek osatuko dute.”**



Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza, Jose Joakin Etxaniz Peña eta Miguel Reimundez Milan.

Beraz, Udalbatza Osoak batzorde informatibo berezien eraketa onartzea aho batez erabaki du.

### **3.- BATZORDE INFORMATZAILEEN OSAKETA.**

Jose Joakin Etxaniz jaunak honako emendakina aurkeztu du:

#### **“3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO OSAKETA:**

*Batzorde Informatiboak ondoko era honetan osatzea proposatzen da:*

- <b>EAJ/PNV</b>	4 kide
- <b>BILDU</b>	2 kide
- <b>Irabazi/Azkoitia Bai</b>	kide 1 (bozkarik gabe)
- <b>PSE/EE</b>	kide 1

*Batzordeen eraginkortasunagatik batzorde bakoitzeko kideak 8ra murriztea proposatzen dugu eta gure taldea prest dago batzordeetan bozkarik ez edukitzera. Bestalde, gure udal taldeak berriro azpimarratu nahi du guretzat oinarritzkoa dela udal honetako barne araudia aldatu eta batzorde hauetara udal taldeak izendaturiko ordezkariak joan ahal izatea ahalbidetzea zinegotzi izateko derrigortasuna kenduz. Udal taldeen bozeramaileek aurkeztuko dute Udaletxeko Erregistro Nagusian Batzorde Informatiboen kideen izendapena (baita ordezkiena ere, hala nahi izanez gero). Batzorde Informatiboaren kide bakoitzak ordezeko bat izan dezake, eta pertsona batek kide bat baino gehiago ordezkari izan dezake.”*

Alkate jaunak beraien proposamena legearen arabera dagoela esan du, hala eta guztiz ere eta botoari uko ezin zaiola egin kontutan harturik hemen aukeratuak izan direnak herriak legalizatutako jendea dela uste du eta ezin dutela erabakirik hartu legalizatu gabeko jendeak. Idazkariari eman dio hitza azalpen juridikoa eman dezan.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Batzorde informatzaileetan kide izatea eta gonbidatu izatea bereizi behar direla esanez hasi da Idazkaria. Udal korporazioaren antolakuntza, funtzionamendua eta araubidea arautzen duen 2568/86 Dekretuaren 103.1. artikulua batzorde informatiboaren kidea izateko korporazioaren kidea izan behar dela esaten du. Beraz, ezin da kidea beste pertsona bat izan.

Beste kontu bat da araubide organikoak hala onartzen badu, nahiz eta kasu honetan horrela ez izan, gonbidatu izaera izatea kanpoko pertsona batzuk egoera konkretu batzuetan edo gai batekin interesatu izaera duelako (interesatua zentzu administratiboan) edo nolabaiteko ordezkari izan duen entitate bat edo elkarte bateko kidea bada.

Bestalde, batzorde informatiboak antolatzeko garaian kontutan hartu behar diren irizpideak azaldu ditu. Honakoak dira:

1.- Korporazioa osatzen duten talde politiko guztiek, nahiz eta kide bat izan, eskubidea dute parte-hartzeko.

2.- Osaketan udalbatza plenoaren proportzionaltasuna errespetatu behar da.

3.- Kide bateko talde politikoak daudenean proportzionaltasun hori malgutu edo aldatu daiteke baina inolaz ere ezin daiteke erabat ezabatu.

Bozka eskubideari uko egiteari dagokionean Idazkariak honakoa dio: *“La renuncia al derecho al voto del concejal miembro de la comisión informativa no es una cuestión organizativa que pueda ser objeto de regulación por un reglamento o por el Reglamento Orgánico. El derecho al voto de concejal es consecuencia directa del derecho fundamental a la participación política reconocido en el art. 23 de la Constitución vigente. Es un derecho indisponible que puede o no ser ejercitado en cada caso pero inherente a su condición de miembro de un órgano colegiado de la corporación, derivado de su estatuto de concejal del que no puede ser despojado ni renunciar al mismo.*

*La representación de los grupos políticos en los órganos de la Corporación local se realiza a través de los concejales electos resultando inadmisibles, salvo en aquellos supuestos en los que así se prevea expresamente, la representación política a través de personas no elegidas por las/los ciudadanas/os. Recordemos que nuestro sistema no se asienta sobre la representación de los grupos sino sobre el carácter representativo de los cargos elegidos. Por todo ello, un acuerdo de las características propuestas en la enmienda sería nulo de pleno derecho.”*

Jose Joakin Etxaniz jaunak batzorde buruak kalitatezko bozkarik baduen galdetu du eta Idazkariak baiezkoa erantzun dio. Hala ere, proportzionaltasuna kalitatezko boto horrekin ez dela kalkulatzen azaldu dio, baizik eta kide zenbakiarekin.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakinaren bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Jose Joakin Etxaniz Peña.
- **Kontrako botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Miguel Reimundez Milan.

Beraz, Udalbatza Osoak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak batzorde informatzaileen osaketari buruz aurkeztutako emendakina EZ ONARTZEA gehiengoz erabaki du.

Ondoren, honako Alkatetza proposamena aurkeztu da:

**“3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO OSAKETA:**

*Batzorde Informatiboak ondoko era honetan osatzea proposatzen da:*

- |                               |        |
|-------------------------------|--------|
| - <b>EAJ/PNV</b>              | 5 kide |
| - <b>BILDU</b>                | 2 kide |
| - <b>Irabazi/Azkoitia Bai</b> | kide 1 |
| - <b>PSE/EE</b>               | kide 1 |

*Udal taldeen bozeramaileek aurkeztuko dute Udaletxeko Erregistro Nagusian Batzorde Informatiboen kideen izendapena (baita ordezkoea ere, hala nahi izanez gero). Batzorde Informatiboaren kide bakoitzak ordezko bat izan dezake, eta pertsona batek kide bat baino gehiago ordezka dezake.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Miguel Reimundez Milan.



- **Abstentzia**: Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak batzorde informatzaileen osaketa onartzea gehiengoz erabaki du.

#### **4.- BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA ERABAKITZEA.**

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

##### ***“4.- OHIKO BATZORDE INFORMATIBOEN BILKUREN MAIZTASUNA***

*Batzorde Informatiboek gutxienez hilean behin bilduko dira ohiko izaeraz.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak**: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza, Jose Joakin Etxaniz Peña eta Miguel Reimundez Milan.

Beraz, Udalbatza Osoak batzorde informatzaile iraunkorren ohiko bilkuren maiztasuna onartzea aho batez erabaki du.

#### **5.- UDAL KORPORAZIOAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENA EGITEA BESTE ORGANO ETA UDALEZ KANPOKO ERAKUNDEETAN.**

##### **5.1.- ZUBIAURRE FUNDAZIOA.**

Jose Joakin Etxaniz jaunak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldearen emendakina aurkeztu du:

##### **“5.1.: ZUBIAURRE FUNDAZIOA :**

**Patronatuko kideak: 9 - IZENAK ZEHAZTU BEHAR DIRA\***



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**EAJ/PNV:** 5 kide (Javier Zubizarreta, Ana M<sup>a</sup> Azkoitia, Nekane Larrañaga, Miguel Angel Bastida, Angel Luis Martín)

**BILDU:** 2 kide

**IRABAZI/AZKOITIA BAI:** kide 1

**PSE/EE:** kide 1

*\*Lehendakaria: Azkoitiko udaleko Alkatea.*

*\* Lehendakariordea: Azkoitiko udaleko Lehenengo Alkateordea*

***Irabazi Azkoitia Baik bere ordezkartzan Nerea Machado Iparragirre proposatzen du bere ordezkari bezala. Gure udal taldeak kide bat izendatu behar du eta ez da zehazten ordezkari horrek zinegotzi izaera izan behar duenik. Horrela bada, dakogion araudia aldatzea proposatzen dugu eta behin behineko izaeraz Jose Joaquin Etxaniz Peña proposatzen dugu.***

Idazkari andreak kasu honetan ez dela batzorde informatibo bat azaldu du, baizik eta Institutuaren Artezkaritza Batzordea eta derrigorrez udal ordezkariak zinegotziak izan behar dutela. Zubiaurre Institutuaren estatutuetan, San Jose Egoitzako estatutuetan eta Iraurgi Lantzeneko estatutuetan udal ordezkariak Alkate edo zinegotzi izan behar dutela xedatzen direlako.

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakinaren bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Jose Joakin Etxaniz Peña.
- **Kontrako botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue eta Miguel Reimundez Milan.
- **Abstentzioak:** Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin eta Ainara Goenaga Andueza.

Beraz, Udalbatza Osoak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak Zubiaurre Fundazioko udal ordezkartzari buruz aurkeztutako emendakina EZ ONARTZEA gehiengoz erabaki du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

**“5.1.- ZUBIAURRE FUNDAZIOA :**

**Patronatuko kideak:** 9 \*

**EAJ/PNV:** 5 kide (*Javier Zubizarreta, Ana M<sup>a</sup> Azkoitia, Nekane Larrañaga, Miguel Angel Bastida, Angel Luis Martín*)

**BILDU:** 2 kide (*Jakes Uranga, Idoia Uranga*)

**IRABAZI/AZKOITIA BAI:** kide 1 (*Jose Joakin Etxaniz*)

**PSE/EE:** kide 1 (*Miguel Reimundez*)

*\*Lehendakaria: Azkoitiko udaleko Alkatea.*

*\* Lehendakariordea: Azkoitiko udaleko Lehenengo Alkateordea.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus M<sup>a</sup> Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Miguel Reimundez Milan.
- **Abstentzioak:** Jose Joakin Etxaniz Peña

Beraz, Udalbatza Osoak Zubiaurre Fundazioko udal ordezkaritza onartzea gehiengoz erabaki du.

Miguel Reimundez jaunak honela dio: *“Yo quisiera hacerle una pregunta a la Secretaria; si aquellas enmiendas que van contra ley porque su aprobación supondría un acuerdo nulo de pleno derecho son tramitables o no. Yo tengo dudas sobre ese punto, creo que no deberían ser tramitables.”*

Idazkariak hartu du hitza galderari erantzuteko: *“Aquí hay dos principios; uno, el que he dicho antes, el principio del derecho a la participación política*



*reconocido constitucionalmente. El otro es el que se ajuste o no a la legalidad una determinada enmienda.*

*Entiendo que para evitar una posible colisión e infracción de derechos constitucionales no voy a informar que no se tramiten, otra cosa es que efectivamente advierta a la Corporación de que ese acuerdo puede ser desde mi punto de vista nulo de pleno derecho y en ese sentido lo advierto. Entiendo que la función del Secretario no es impedir el ejercicio de un derecho básico constitucional.”*

## **5.2.- SAN JOSE FUNDAZIOA.**

Honakoa da Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakina:

### **“5.2: SAN JOSE FUNDAZIOA:**

**Patronatuko kideak:** 9 + 2 IZENAK ZEHAZTU BEHAR DIRA

**EAJ/PNV:** 5 kide (Javier Zubizarreta, Ana M<sup>a</sup> Azkoitia, Nekane Larrañaga, Miguel Angel Bastida, Sonia Vazquez)

**BILDU:** 2 kide

**IRABAZI/AZKOITIA BAI:** kide 1

**PSE/EE:** kide 1

**BI HERRITAR:** Orain daudenak mantentzea proposatzen da: Mertxe Zubillaga eta Mailu Badiola

***Irabazi Azkoitia Baik bere ordezkartzan Ana Isabel Albizuri Azkarateaskasua proposatzen du bere ordezkari bezala. Gure udal taldeak kide bat izendatu behar du eta ez da zehazten ordezkari horrek zinegotzi izaera izan behar duenik. Horrela bada, dakogion araudia aldatzea proposatzen dugu eta behin behineko izaeraz Jose Joaquín Etxaniz Peña proposatzen dugu.”***

Jose Joakin Etxaniz jaunak estatutuak aldatzerik badagoen galdetu du.

Alkate jaunak estatutuak aldatzeko aukera beti dagoela dio dagozkion arauak eta gehiengoak betez. Hala ere, Plenoa gehiegi ez dadin luzatu galdera hori alde batera utziko dela adierazi du.

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakinaren bozketaren emaitza honakoa da:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- **Aldeko botoak:** Jose Joakin Etxaniz Peña.
- **Kontrako botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue eta Miguel Reimundez Milan.
- **Abstentzioak:** Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin eta Ainara Goenaga Andueza.

Beraz, Udalbatza Osoak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak San Jose Fundazioko udal ordezkari buruz aurkeztutako emendakina EZ ONARTZEA gehiengoz erabaki du.

Alkatetzaren proposamenak honela dio:

**“5.2: SAN JOSE FUNDAZIOA:**

**Patronatuko kideak:** 9 + 2 IZENAK ZEHAZTU BEHAR DIRA

**EAJ/PNV:** 5 kide (Javier Zubizarreta, Ana M<sup>a</sup> Azkoitia, Nekane Larrañaga, Miguel Angel Bastida, Sonia Vazquez)

**BILDU:** 2 kide (Urrategi Alberdi, Ainara Goenaga)

**IRABAZI/AZKOITIA BAI:** kide 1 (Jose Joakin Etxaniz)

**PSE/EE:** kide 1 (Miguel Reimundez)

**BI HERRITAR:** Orain daudenak mantentzea proposatzen da: Mertxe Zubillaga eta Mailu Badiola.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus M<sup>a</sup> Oteiza Carrasco, Idoia Uranga



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin,  
Ainara Goenaga Andueza eta Miguel Reimundez Milan.

- **Abstentzioak:** Jose Joakin Etxaniz Peña

Beraz, Udalbatza Osoak San Jose Fundazioko udal ordezkari-tza onartzea gehiengoz erabaki du.

### **5.3.- IRAURGI LANTZEN, S.A.**

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakina honakoa da:

#### **"5.3: IRAURGI LANTZEN S.A.**

*Azkoitiko udaleko ordezkari-tza, Alkate-Lehendakariak eta Talde Politiko bakoitzetik ordezkari banak osatuko dute. **IZENAK ZEHAZTU BEHAR DIRA***

**Alkatea:** Javier Maria Zubizarreta Zubizarreta

**EAJ/PNV:** Ana M<sup>a</sup> Azkoitia Urteaga

**BILDU:**

**Irabazi/Azkoitia Bai:**

**PSE:**

*Irabazi Azkoitia Baik bere ordezkari-tzan Jose Antonio Hidalgo Mangas proposatzen du bere ordezkari bezala. Gure udal taldeak kide bat izendatu behar du eta ez da zehazten ordezkari horrek zinegotzi izaera izan behar duenik. Horrela bada, dakogion araudia aldatzea proposatzen dugu eta behin behineko izaeraz Jose Joaquin Etxaniz Peña proposatzen dugu."*

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakinaren bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Jose Joakin Etxaniz Peña.
- **Kontrako botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue eta Miguel Reimundez Milan.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- **Abstentzioak:** Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin eta Ainara Goenaga Andueza.

Beraz, Udalbatza Osoak Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak Iraurgi Lantzen, S.A.-ko udal ordezkari buruz aurkeztutako emendakina EZ ONARTZEA gehiengoz erabaki du.

Alkatetzaren proposamena honakoa da:

**“5.3: IRAURGI LANTZEN S.A.**

*Azkoitiko udaleko ordezkariak, Alkate-Lehendakariak eta Talde Politiko bakoitzetik ordezkari banak osatuko dute.*

**Alkatea:** Javier Maria Zubizarreta Zubizarreta

**EAJ/PNV:** Ana M<sup>a</sup> Azkoitia Urteaga

**BILDU:** Jesus M<sup>a</sup> Oteiza Carrasco

**Irabazi/Azkoitia Bai:** Jose Joakin Etxaniz Peña

**PSE:** Miguel Reimundez Milan.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus M<sup>a</sup> Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Miguel Reimundez Milan.

- **Abstentzioak:** Jose Joakin Etxaniz Peña

Beraz, Udalbatza Osoak Iraurgi Lantzen, S.A.-ko udal ordezkariak onartzea gehiengoz erabaki du.

**5.4.- UROLA ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA.**

Honako Alkatetzaren proposamena aurkeztu da:





#### **"5.4: UROLA ERDIALDEKO MANKOMUNITATEA**

*Estatutuetan xedatutakoaren arabera, Azkoitiko udalak 3 ordezkari izendatu behar ditu. Hauek udalbatza plenoak izendatuko ditu dagozkion bozketa eginez, bozketa horretan zinegotzi bakoitzak BI ORDEZKARI proposatu ahal izango dituelarik. Bozketa bakarra egin behar da eta emaitzen arabera ordezkariak aukeratuak izango dira.*

**EAJ/PNV aldetik:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana M<sup>a</sup> Azkoitia Urteaga.

**BILDU aldetik:** Ainara Goenaga."

Bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi, Maitane Unanue Azkue, Urrategi Alberdi Garate, Jesus M<sup>a</sup> Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza, Jose Joakin Etxaniz Peña eta Miguel Reimundez Milan.

Beraz, Udalbatza Osoak Urola Erdialdeko Mankomunitateko udal ordezkariak onartzea aho batez erabaki du.

#### **5.5.- UROLA ERDIKO LAPATX, S.A.**

Honakoa da Alkatetzaren proposamena:

#### **"5.5: UROLA ERDIKO LAPATX S.A.**

*Urola Erdiko Mankomunitateari dagokio Azkoitiko Udaleko bi ordezkariak izendatzea. Beraz, bozketa Mankomunitatearen Batzarrean egingo da."*

Urola Erdiko Lapatx, S.A.-ko ordezkariak Urola Erdiko Mankomunitateak izendatuko dituenez, puntu hau bozkatu beharrik ez dagoela esan du Alkatea jaunak.



## **5.6.- ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOA.**

Jose Joakin Etxaniz jaunak emendakina aurkeztu du:

### **“5.6: ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOA**

***Orain arte, Alkatea + 4 kide izendatu ditu plenoak***

*Estatutuen 13. artikulua: Udala (orain arte Alkatea), Kukuerra Aterpetxea S.L. Antonio Oteizaren ordezkaria, eta udalak izendaturiko 4 ordezkari. Horietaz gain, 9 kide arte, beste pertsona fisiko edo juridikoak.*

***Patronatuko kideak:*** *Udalak 5 kide izendatu behar dituela kontuan izanik, EAJ-ak 3 kide eta Bilduk 2 kide proposatzen dugu. Gure taldearen iritziz banaketa honek egokiago isladatzen du udal batza.”*

Irabazi-Azkoitia Bai udal taldeak aurkeztutako emendakinaren bozketaren emaitza honakoa da:

- **Aldeko botoak:** Urrategi Alberdi Garate, Jesus Oteiza Carrasco, Idoia Uranga Salegi, Jakes Uranga Repulles, Gaizka Larrañaga Ucin, Ainara Goenaga Andueza eta Jose Joakin Etxaniz Peña.
- **Kontrako botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Nekane Larrañaga Aizpuru, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Angel Luis Martin Rodriguez, Sonia Vazquez Tejerina, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Asier Lizarralde Aramendi eta Maitane Unanue Azkue.
- **Abstentzioak:** Miguel Reimundez Milan

